



ADMINISTRAZIO KONTSEILUAK

2014 EKA. 19

Aprobado por Consejo de Administración.

Hernani,

2014 EKA: 20



onartua
Bazkeriak,

**DEBAGOIENA MANKOMUNITATEKO HIRI
HONDAKINAK GARRAIATZEKO ZERBITZU
KONTRATUAREN ETA ARRASATEKO
AKEI TRANSFERENTZIA ESTAZIOAREN
KUDEAKETARAKO BALDINTZA
TEKNIKOEN AGIRIA**



2014 EKA. 19

Aprobado por Consejo de Administración.

Hernani,

2014 JUN. 20



(E)an onartua
Kazkarrak,

AURKIBIDEA

1	LEHIAKETAREN XEDEA	4
2	ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA	4
3	ESLEIPENDUNAK BETE BEHARREKO BALDINTZA OROKORRAK	5
3.1	Langileak	8
3.2	Larunbat eta jaiegunetako prezioen aplikazio-irizpideak	11
3.3	Instalazio finkoak	12
3.4	Kanpoko erabiltzaileek egiten dituzten deskargen kontrol eta jagoletza	15
3.5	Mankomunitateko zerbitzuek Akei estazioa erabiltzea	18
3.6	Lan-arriskuen prebentzioa	19
3.7	Ekipo mugikorak	20
3.8	Kontrol-sistemak	22
4	KONTRATUAREN BEHARKIZUNAK EZ BETETZEAK SORTUTAKO ZIGORRAK ETA ISUN HERTSATZAILEAK	23
5	EZ BETETZEEN MAILAKETA	24
5.1	Ez betetze larriak	24
5.2	Ez betetze arinak	25
6	ZIGORRAK ETA ISUN HERTSATZAILEAK EZARTZEA	26
6.1	Zigorren araubidea	26
6.2	Zigorren mailakatzea	27



ADMINISTRAZIO KONTSEILUAK

2014 EKA 19 (Ea) onartua
Aprobado por Consejo de Administración.

Hernani,

2014 JUN 28



GHK
Gipuzkoako
Hondakin
Kudeaketa

Ida Kariak,

6.3	Zigorrak eta isun hertsatzaileak eguneratzea.....	27
7	ESKAINTZAK AURKEZTEKO DERRIGORREZKO EZAUGARRI TEKNIKOAK	27
7.1	Derrigorrezko baldintzak.....	27
8	ENPRESA LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO DERRIGORREZKO DOKUMENTAZIO TEKNIKOA.....	29
8.1	Ibilgailuen eta erdiatoien ezaugarri teknikoak.....	29
8.2	Mantentze prebentibo eta zuzengarrirako eta baskularen kalibraketarako proposamena	30
8.3	Memoria teknikoa: Zerbitzu-prestazioaren, garraio-kudeaketaren eta Akei transferentzia-estazioaren proiektua	30
9	PROPOSAMENAK BALORATZEA.....	31
10	NEURRIZ KANPOKO EDO EZOHICO PROPOSAMENAK	33



2014 EKA 19 (e)an onartua
Aprobado por Consejo de Administración.

Hernani, 2014 EKA JUN 20



Idazkaria

1 LEHIAKETAREN XEDEA

Baldintza agiri honen xedea da goi-hornidurako hiri hondakin errefusa Debagoieneko Mankomunitateko Sasietako hondakindegira (Beasain) garraiatzeko zerbitzua kontratatzea; halaber, aukera egongo da, zerbitzuaren premien arabera, zerbitzuaren helmuga gisa ezartzea hondakindegiri beste bi hauek: Urteta eta Lapatz (biak Gipuzkoan).

Halaber, kontratuan Akei transferentzia-estazioaren kudeaketa ere esleituko da, edo bestela, GHK-k horren ordeztu dezakeen transferentzia-estazioarena, baita horren osoko artapena, kimaketa-hondakinak pilatzeko aldi bateko eremuarena, sarbideen kontrola eta hondakin deskarga barne, bai hiri hondakin hobian, bai kimaketa eta lorezaintza-hondakin biltegian ere.

2 ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA


Garraio-zerbitzuak **8.500 tona inguru garraiatuko ditu urtean**, Akeiko plantatik Sasietako hondakindegira (Beasain), hasiera bateko helmuga gisa. Hala ere, zerbitzuaren premien arabera, GHK-k helmuga aldatu ahal izango du, eta hori gertatzen bada, kilometro-ordainaren kostua birkalkulatuko da, kilometro-kopurua areagotu edo murriztu beharko delako. Zamaketa egiteko puntuan edo zama uzteko helmugan egin ahal izango ditu aldaketak GHK-k.

Kontratuko baldintzen barne, esleipendunak Akeiko plantaren kudeaketa hartu beharko du bere gain, era horretan, plantaren funtzionamendu egokia bermatzeko, karga-prozesua behar bezala egiten dela bermatzeko, baliabideak optimizatzeko, eta planta horretan zamatuta beharko liratekeen erdiatoiak ahalik eta modu onenean zamatzea errazteko.

Esleipendunak hiri hondakin transferentzia-lanak egingo ditu; hau da, jasotze-hobitik garraio-ibilgailuetara pasako ditu hiri hondakinak olagarro-garabia eta zubi-garabia erabiliz, Sasietako hondakindegira (Beasain) garraiatuko ditu eta bertan deskargatuko ditu.

Zerbitzuaren funtzionamendua dela-eta sortzen diren gastuak, hau da, pertsonal gastuak, ur-kontsumoak, energia elektrikoaren kontsumoa, telefonoa, erregaia, artapen-gastuak, aseguruak eta zerbitzua egikaritzari lotutako gastuak oro har, esleipendunaren kontura izango dira.

Aipagarria da azpimarratzea, GHK transferentzia-estazio bat eraikitzen hasi dela Debagoienan, egungo Akeiko estazioa ordeztuko duena. Kontratu honen aplikazioan zehar, GHK-k transferentzia-estazio berria prest edukiko balu, ahalmena izango du esleipendunari jakinarazteko noiztik aurrera hartuko behar


 Idazkaririk,

duen bere gain transferentzia-estazio berriaren ardura, eta beraz, Arrasateko Akei Plantaren orde, bere jarduera estazio berri horretara eraman beharko du esleipendunak. Jarduera-lekualdaketa horrek ez du inolako kosturik sortuko GHKrentzat, eta esleipendunak berdin-berdin hartu beharko ditu bere gain Baldintza Agiri honetan artapenaren, kostuen, pertsonalaren eta abarren inguruan xedatutako baldintzak.

Hiri hondakinen hasiera bateko helmuga Beasaineko Sasieta hondakindegia izango da. Sasieta hondakindegian hiri hondakinak deskargatzeko ordutegia honako hau izango da:

ASTELEHENETIK OSTIRALERA

06:30 eta 13:00 bitarte.

LARUNBATETAN, IGANDETAN ETA JAIEGUNETAN EZ DA HONDAKIN GARRAIORIK EGINGO, ZERBITZU PREMIAGATIKOAK IZAN EZIK.

3 ESLEIPENDUNAK BETE BEHARREKO BALDINTZA OROKORRAK.

GHK-k Arrasateko Akei transferentzia-estazioa erabiliko du: zakarra biltzen duten kamioiek hobi batean deskargatzen dute beren zama, eta olagarro motako garabi-sistema batekin, zoru mugikorreko erdiatoi batzuk zamatzen dira, 22 Tn inguruko edukierakoak. Akei plantaren enpresa esleipendun kudeatzailea izango da zama horien kudeaketa egokia egiteko arduraduna.

4 x 4 trakzio buruak erabiliz mugituko dira erdiatoiak, hasiera batean esleitutako hondakindegia Sasieta izan arren, hondakinak arestian aipatutako edozein hondakindegietara garraiatu eta bertan deskargatu ahal izateko.

Trakzio buru horrek ezaugarri teknikoan atalean xedatutako ezaugarriak bete beharko ditu gutxienez.

Zoru mugikorrekoak dira erdiatoiak, 12,5 metroko luzera dute, eta 78 metro kubikoko edukiera, gutxi gorabehera. GHKk, lizitazio honetan, EQUIPTRANS etxeko zoru mugikorreko bi erdiatoi jarriko ditu esleipendunaren eskura zerbitzuan erabiltzeko; bi erdiatoi horiek autonomiadun motorrik ez dute eta martxan jartzen dira sistema hidraulikodun tutu malguen bidez edo dagokion trakzio-buruarekin.

Erdiatoiak hurrengoak dira:

- R-8196-BCH
- R-8195-BCH

Aprobado por Consejo de Administración

Hernani,

2014 EKA: 20



Idazkaririk,
[Handwritten signature]

Esleipendunak erdiatoiek sortzen dituzten kostu guztiak bere gain hartu beharko ditu (mantentze gastuak, IAT-ak, aseguruak eta abar).

Esleipendunak hondakinak hondakindegira garraiatzeko trakzio buruak eman beharko ditu, horien kostu guztiak kalkulatu (kamioiak jartzea, mantentzea,, aseguruak, IAT-ak eta abar).


Ekipo horien guztien errotulazio-gastuak esleipendunaren kontu izango dira, eta errotulazio horiek behar bezala mantentzen direla bermatu beharko du. GHK-k enpresaren logotipoa emango dio esleipendunari, eta esleipendunak 30 eguneko epea izango du, kontratua sinatzen den egunetik aurrera, zerbitzuan erabiliko dituen erdiatoietan eta trakzio-buruetan errotulu horiek jartzeko.

Akei plantako hiri hondakin hobia azpiegitura bereziki garrantzitsua da GHK-k eskaintzen duen hiri hondakin bilketa eta garraio-zerbitzuetarako. Bereziki garrantzitsua da esleipendunak behar bezala bermatzea hobia uneoro edukiera nahikoa duela hurrengo egun edo asteetako premiei aurre egiteko. Premia horiek aldakorak dira, eta zenbait faktoreren arabera dira: urteko sasoa (hondakin gehiago ala gutxiago biltzen dira), jaiegunak egotea, aurreikusitako klimatologia (elurraren ondorioz, batzuetan ezin izaten dira hondakinak hondakindegian deskargatu), matxurak, hondakindegian deskargak egiteko mugen aurreikuspenak eta abar.

Horregatik, ezinbestekoa izango da bermatzea AKEIKO HOBIA INOIZ ERABAT EZ BETETZEA, hori gertatzen bada, ezin izango bailitzateke deskargarik egin, eta beraz, hiri hondakin bilketa-zerbitzuak eten egin beharko bailirateke. Halaber, hurrengo egun edo astetan jarduera-maila handiagoa edo txikiagoa egongo dela aurreikusten badu, esleipendunaren ardura izango da sor daitezkeen premia eta arriskuak aurreikusi eta horien plangintza egitea, era horretan, hobia gehiago edo gutxiago husteko.

Beraz, esleipendunaren betebeharra izango da urteko egun guztietan hobia edukiera nahikoa edukiko duela bermatzea. Halaber, oso garrantzitsua da hobia oso beteta ez edukitzea, era horretan, bektorerik sor ez dadin (arratoiak, intsektuak eta abar).

Transferentzia egunero egingo da, lanegunetan; hots, astelehenetik ostiralera, aurreko egunean jasotako hiri hondakinak zamatu eta garraiatzeko. Era horretan transferitu, garraiatu eta hondakindegian biltegitatu diren tonak esleipen-prezioaren arabera ordainduko dira. GHKri fakturatzeko erreferentziako tona-kopurua hondakindegian jalkitakoa izango da, dagozkion tiket edo frogagiriak aurkeztuta.



Hondakindegiek zehaztutako ordutegien arabera egingo dira hiri hondakin bidalketak, hots, egunez ala gauzez (betiere zerbitzuaren premien arabera), eta beraz, horrek zehaztuko du garraio-maiztasuna.

Hondakindegietan hondakinak deskargatzeko orduan, hondakindegiko bakoitzerako zehaztutako ohar eta arauak bete beharko dira derrigorrez. Arau, ordutegi edo egutegiak aldatuko balira, esleipendunak baldintza berrietara egokitu beharko ditu bere lanak, era horretan, zerbitzua behar bezala emateko, eta aldaketa horiek kosturik sortuko balu, horiek bere gain hartuz.

Kimaketa-lanetako hondakinak aldi baterako pilatzeari dagokionez, hondakin-mota horren harrera-kontrola egin beharko du esleipendunak, eta aldi behin (adibidez, 3 eta 5 astero bitarte, urteko sasoiaren arabera jasotako kimaketa-hondakin arabera), **kimaketa-hondakinak pilatu edo metatu** beharko ditu, hondakin horiek pilatzeko zabaldegiko eremu bat libre utzi eta horrelako hondakin gehiago pilatu ahal izateko. **Horretarako, pilaketa-lan horiek egiteko moduak eta baliabideak zehaztu beharko ditu esleipendunak bere eskaintzan.**

Aurreko baldintza guztiak kontuan hartuta, hondakin garraioari dagokionez, lizitatuzaileek honako puntu hauek zehaztu beharko dituzte eskaintzetan:

- Zerbitzua bermatzeko beharrezkoak diren garraio-ekipoen deskribapena
- Kasu bakoitzerako garraio-sistema, ibilgailuak eta langileak
- Kasu bakoitzean proposatutako eliminazio-zentroetara iristeko ibilbideen deskribapena, distantziak eta denborak zehaztuta
- Transferentzia-estazioetan eta eliminazio-zentro bakoitzean, sistema bakoitzarekin zamalanak egiteko behar den denbora.
- Kasu bakoitzean, egunero egin beharreko garraio edo joan-etorri kopurua.
- Zerbitzua ahalik eta hobekien deskribatzeko beharrezkoak diren datu guztiak.

GHK-k, zerbitzuaren premiengatik, hondakin eliminazio-zentro berriak izendatu ahal izango ditu, edo hasiera batean aurreikusitakoak aldatu.

Lizitatuzaileek, **Akei Estazioa eta Garraio Zerbitzua Kudeatzeko Proiektua** aurkeztu beharko dute eskaintzetan: bertan, zerbitzua behar bezala dimentsionatu beharko dute, eta zerbitzuaren dimentsionatze zein



ADMINISTRAZIO KONTSEILUAK

2014 EKA. 19

Aprobado por Consejo de Administración

Hernani,

2014 JUN: 20



Idazkaririk,

koordinazioaren alderdi guztiak justifikatu beharko dira, era horretan, zerbitzua behar bezala ematen dela bermatzeko.

3.1 Langileak

Momentu oro, Ezaugarri Teknikoen Agiri honetan xedatutako ezaugarri eta zuzentarauei zein aurkeztutako eskaintzan xedatutakoari jarraiki, dagokion zerbitzua emateko beharrezkoa den langile-kopurua izango du esleipendunak.

Esleipendunak beharrezko giza baliabideak izan beharko ditu kontratuko zerbitzua modu eraginkorren betearazi eta sor daitezken gorabeherei aurre egiteko, esaterako, gaixotasun edo istripuengatikoko bajei, baimenei, sindikatu-lanei, oporrei eta bestelako arrazoiengatikoko absentziei; baita espero ez diren bestelako bajei eta absentismoari aurre egiteko ere. Esleipendunak langileen absentzia edo baja horiek lehenbailehen bete beharko ditu. Ordezko langileek lanpostuen arabera prestakuntza eta eskarmentua eduki beharko dute.

Arestian aipatutakoaren arabera, lizitatzailleek, bere proposamenetan, kontratatutako zerbitzuak modu eraginkorren emateko behar dituzten langileen proposamena aurkeztu beharko dute eskaintzetan, baita langileak ordezteko plan bat ere.

Zerbitzuaren buru eta arduradun nagusi gisa egongo da KONTRATUAREN ORDEZKARI BAT, kontrataren esparru guztietan erabakiak hartzeko nahikoa gaitasun duen pertsona izango dena. KONTRATUAREN ORDEZKARIAK telefono mugikorra izango du, eta GHKko Zerbitzu Teknikoekin zuzeneko hartu-emanak izango ditu. Halaber, lanak errazago kontrolatu eta ikuskatzeko ibilgailu bat ere izango du. Halaber, lanpostuan ez dagoenean (oporrak, bajak, bidaiak eta abar direla-eta), ordezko arduradun bat ezarriko da, era horretan, momentu oro, kontratatutako lanak kontrolatu eta koordinatzeko arduradun tekniko bat edukitzeko.

Enpresak ezingo du KONTRATUAREN ORDEZKARIA beste pertsona batekin ordeztu, enpresako antolaketa-lan edo erantzukizunetan aldi baterako edo behin betiko ardurak izan ditzan, baldin eta GHKko Zerbitzu Teknikoak horretarako baimenik eman ez badu idatziz eta aldez aurretik.

Kontratuaren ORDEZKARIA oso garrantzitsua denez, GHK-k eskubidea du enpresa esleitzailleak postu horretarako izendatutako pertsona onartu edo ukatzeko. Halaber, pertsona horren prestakuntza, eskarmentua edo egindako lana bete beharreko ardura zein helburuen arabera ez direla uste badu, GHK-k eskubidea izango du hori berehala ordezkatzea eskatzeko. Azken kasu horretan, ordezkarria aldatzeko eskaera egiten den momentutik aurrera,



gehienez hilabeteko epea izango du enpresa esleipendunak hori betetzeko, eta horrek ez du inola ere aldatuko esleipen-prezioa.

KONTRATUAREN ORDEZKARIAK eta enpresako zuzendaritza-ordezkariek GHK-k deitzen dituen bilera eta lan-saio guztietara joango dira.

Proposamenetan, aurreikusitako aginte-lanpostuak, horiek bete beharreko funtzio eta esleipenak, eta zerbitzu horietara atxikitako bitarteko materialak ere zehaztu beharko dituzte lizitatzailleek.

Lizitatzailleek, beren eskaintzetan, ahalik eta xehetasun-maila handienarekin zehaztuko dute zerbitzu honetako lanak behar bezala egiteko administrazio-lantaldea, baita haren funtzioak eta esleipenak ere. Lantalde hori esleipendunaren enpresa egituraren barruan egongo da eta ez da loturik geratuko kontratu honi langileen subrogazio bidez.

Halaber, lizitatzailleek organigrama hierarkiko eta funtzional bat aurkeztu beharko dute, bertan argi eta garbi azaldu beharko dira atal honetan aipatutako giza baliabide guztiek duten ardura-maila.

GHK SAU-k lizitatzailleei jakinarazten die Errepideen Garbiketako Hitzarmen Kolektiboan aurreikusitako subrogazioek eragiten dieten langileen kontratuetako baldintzak Baldintza Administratibo Berezien Agiriko VI. Eranskinean xedatutakoak izango direla, bertako 25.2 klausulan xedatutakoaren arabera.

Hitzarmen kolektibo horrek xedatzen du enpresa-jarraipenaren bidez, hain zuzen ere, 2014ko uztailaren 17ra arte indarrean dagoen kontratuaren esleipendunak GHK, SAUn zerbitzuak ematen zituen kontratako lantaldea bere gain hartu zuen moduan, esleipendun honek ere langile horiek bere gain hartu behar dituela.

Baldintza Administratiboan Agirian eranskin gisa ageri da, arestian aipatutako zerbitzuak direla-eta, zerbitzu horretara atxikitako langileen zerrenda eta horien lan-baldintzak.

Kontratu hau bukatzen den unean, honen bidez aurrera eramaten den zerbitzua iraungiko balitz, langileen, norberarenak edo subrogatutakoak, aldeko lan obligazioak kitatzeko erantzukizuna esleipendunarena izango da; honek bere gain hartu beharko ditu kalte-ordainen kostuak (kaleratzearen ondoriozkoak barne) eta lan izaerako kostuak eta judizialak, egongo balira.



GHK-k ez du harreman juridiko, lan-harreman edo bestelako harremanik izango enpresa esleipenduneko langileek, ez Kontratuaren iraunaldian, ez hura amaitzen denean ere. Halaber, enpresaren kontura joango dira Kontratu hau iraungitzeagatik sor daitezkeen obligazio, kalte-ordain eta ardurak.

Gizarte Segurantzari, lan-istripuei eta PFEZari dagozkion lan-obligazio guztiak bete beharko ditu enpresa esleipendunak.

Enpresa esleipendunean grebarik eta lan-gatazkari badago, GHKren eta esleipendunaren artean hitzartutako gutxiengo zerbitzuak betetzea eskatuko du GHK-k, baldin eta Lan Autoritate eskudunak horien onartzen baditu. Enpresa esleipendunak gutxiengo baldintza horiek betetzen ez baditu, GHK-k esleipenduna zigortu ahal izango du, ez-egiteen erregimena erabiliz. Kasu horretan ere, esleipendunak ez-betetze larria egiten badu, GHK-k eskubidea izango du kontratua amaitutzat emateko, eta zerbitzu horiek hirugarren enprekin kontratatzeke, era horretan, kontratu honetako xedea, hau da, zaborren garraio eta banaketa-zerbitzua bermatzeko. Gutxiengo zerbitzuak ez betetzean, edo gutxiengo zerbitzu horiek zein lan-gatazka luzatzearen ordez egoera eutsiezina sortuko balitz, GHK-k hala eskatuta, enpresa esleipendunak ibilgailuak eta gainerako baliabideak laga beharko dizkio azken horri, lan-normaltasuna berrezarri arte, egokitzat jotzen dituen zerbitzuak egin ahal izateko. Lagapen horren kostu guztiak enpresa esleipendunaren kontura joango dira, gatazkaren ondorioz sor daitezkeen zigorrak eragotzi gabe.

Edonola ere, arrazoi teknikoak edo langileen inguruko arazoak direla-eta, esleipendunak esleitutako zerbitzuak emateko arazorik izango balu, GHK enpresak horri aurre egin eta beste bitarteko batzuk kontratatu ahal izango ditu zerbitzua bermatzeko. Kasu horretan, GHK-k kudeatutako irtenbideen kostu guztia esleipendunak hartuko du bere gain.

Kontratuaren indarraldiaren barne, edozein arrazoi dela-eta, hasierako lantaldean aldaketarik sortzen bada (langileren batek erretiroa hartzea, langile bat hiltzea, baja boluntarioa hartzea, kaleratzea, desgaituta geratzea...) zerbitzuaren premiagatikoak barne, enpresa esleipendunak aldeztatik horren berri eman beharko dio GHKri, eta aldaketak egiteko edo huts geratu zein sortzen diren lanpostu berriak betetzeko baimena eskatu beharko dio aldeztatik aurretik eta idatziz.

Zerbitzuen segurtasuna bermatzeko, langile guztiak behar bezala identifikatuta joan beharko dira, eta beraz, horretarako identifikazio-sistema eraginkorra proposatu beharko da.

Lizitatuak, emakidan aurreikusitako langileak nola antolatu eta kudeatuko dituzten azalduko dute beren eskaintzetan, esaterako, alderdi hauetan:



- Egindako azterlanen emaitza gisa, kontratu honetako lanak egiteko beharrezko langile-kopurua, bakoitzaren datu hauek zehaztuz:
- Prestakuntza-maila
- Esleitutako lana
- Banakako kostua (urtekoa, lanegun bakoitzekoa, benetako lanordu bakoitzekoa)
- Lanpostuak hutsik geratzen badira, baita ezusteko moduan ere, horiek betetzeko antolakuntza-prozedura, era horretan, lanpostu horiek betetzen direla bermatzeaz gain, egin beharreko lanei buruzko ezagutza ona bermatzeko.
- Lan Hitzarmena.
- Langileen kudeaketari buruzko bestelako alderdiak, besteak beste, laneko segurtasun eta higienari buruzkoak, langileen prestakuntzari zein lanpostu-egonkortasunari buruzkoak eta abar.

3.2 Larunbat eta jaiegunetako prezioen aplikazio-irizpideak

Transferentzia eta garraioa egunero egingo dira, lanegunetan; hots, astelehenetik ostiralera, aurreko egunean jasotako hiri hondakinak zamatuta eta garraiatzeko. Era horretan transferitu, garraiatu eta hondakindegian biltegitatu diren tonak esleipen-prezioaren arabera ordainduko dira.

Lan-plangintzaren bidez, lizitatuak behar bezala bermatu beharko du zerbitzuaren premia guztiak betetzen direla, hain zuzen kontratutako lanak lanegunetan eginez. Zerbitzua behar bezala bete behar izateko, esleipendunak transferentzia eta garraio-lanak larunbat, igande edo jaiegun jakin batzuetan egin behar baditu, GHKri egoztekoak ez diren arrazoiak direla-eta, tona horiek esleipen-prezioaren arabera ordainduko zaizkio: matxurak Transferentzia Plantan, garraio-ibilgailuetan, eguraldi txarra edo GHKri egoztekoak ez diren bestelako arrazoiak, horien ondorioz, kontratatutako lanak lanegunetan egiteko orduan, ustezko atzerapenak sortu dituztenak.

Baldintza jakin batzuetan, esleipendunak kontratuko lan guztiak atzerapenik gabe egin dituen arren, komenigarria izan daiteke transferentzia eta garraio-lanak egitea larunbat, igande edo jaiegunetan, esaterako Aste Santuan, hainbat jaiegun baitaude segidan, eta hobiaren edukiera osoa agian ez baita nahikoa. Kasu horietan, betiere GHK-k alde aurretik horretarako baimena ematen badu, esleipendunak jaiegunetan lan horiek egin beharko ditu, eta garraiatutako tona-kopuruaren arabera ordainduko dira.



Jaieguntzat joko dira Arrasateko udalerriko jaiegun ofizialak. San Martin Perres eguna ez da jaieguntzat joko. Arrasateko herriko jaiegunean (San Juan egunean) zerbitzua eman beharko da.

3.3 Instalazio finkoak

GHK enpresak esleipendunaren esku jarriko ditu Akei transferentzia-estazioko instalazioak, hain zuzen ere honako hauek:

- Sarrerako langa
- Maniobrak egiteko zabaldegia
- Plantan zamak kontrolatzeko baskula
- Panel elektriko orokorra
- Zentral hidraulikoa
- Zubi-garabia eta olagarro-garabia
- Zamaketa-toberak
- Deskarga-hobia ixteko ateak
- Artapen-lanetarako tailerra
- Komunak eta bulegoak
- Ur eta elektrizitate-kontagailuak
- Deskarga-hobia eta arestian aipatutako elementuak barne hartzen dituen nabea
- Nabearen barneko urbanizazioa
- Edateko ura ponpatzeko sistema eta ur-biltegia
- Elektrizitate-transformazio zentroa
- Kimaketa eta lorezaintza-hondakin biltegia
- Bideozaintza-sistema

Esleipendunak, aipatutako instalazioen eta Akeiko plantan daudenen mantentzea, kalibraketa eta doikuntzak egitea bere gain hartu beharko du, GHKrentzako inongo ondoriorik gabe.



Lizitaztaileak plantan eraberritze-lanik egin nahi izanez gero, GHK enpresari aurkeztu beharko zaizkio honek onar ditzan. Onarpenaren ondoren, esleipendunak bi hilabeteko epea izango du gehienez eraberritze-lan horiek egiteko.

GHK-k sarrera kontrolatzeko ezarritako sistema erabiltzen duela bermatu beharko du esleipendunak, edo bestela, berak proposatutako beste sistema bat erabiltzen dela, hain zuzen ere eskaintzan zehaztuta egon beharko dena, hau egin ahal izateko:

- Akei estaziora sarbide mugagabea duten mankomunitate-zerbitzuek zuzenean erabil dezaten (berezi hiri hondakinak jasotzen dituzten gaueko zerbitzuek), enpresa esleipendunaren langilea bertan egon beharrik gabe. Edonola ere, GHK izango da estazioan sartzeko ordutegiak eta sarbideak baimenduko dituena.
- Sistemak **beti** emango du pisaketa-tiket bat (paper auto-kopiatzailean, kopia bat erabiltzailearentzat eta bestea GHKrentzat); eta horretarako, beharrezkoa denean, paper biribilkiak eta tinta kartutxoak aldatu beharko ditu esleipendunak.
- Sistemak egindako pisaketa guztiak erregistratuko ditu barne-memoria batean, era horretan, datu guztien zerrendak atera eta sistema informatizatu batean gordetzeko.

Pisaketa-baskularen kalibraketak eta gainerako artapen-lanak estazioko zerbitzutik kanpo egon beharko dira. Lan horien ondorioz sortzen diren gastuak esleipendunaren kontura joango dira.

GHK-k erabakiko balu egungo instalazio finkoak zabaltzea, edo instalazio berriak eraikiko balitu, kasu horretan zehazten diren irizpide berriak onartuko ditu esleipendunak, eta ondorioz ez da tonako kanona aldatuko.

GHK-k ez du inolako konpromisorik izango emakidaren indarraldian esleipendunak erabiltzen dituen lokalen aurrean, ezta emakida desegin edo iraungitzen denean ere, edonoz GHKren jabetzakoak diren lokalen aurrean izan ezik.

Akei estazioaren eta bertako ekipo zein elementu guztien osoko artapena egin beharko du esleipendunak, prebentziorako beharrezkoak diren artapen-lanak eta zuzengarriak zein osoko garbiketa lanak eginez, matxurak konponduz eta aldian behin kimaketa-hondakinak pilatuz; azken lan hori egiteko medioak proposatu beharko ditu bere eskaintzan.



Esleipendunaren betebeharra izango da instalazio finkoak osatzen dituzten elementu guztiak egoera ezin hobean eta garbi mantentzea, eta horretarako jarduera hauek egin beharko ditu gutxienez:

- Bulego, gela eta instalazioak garbitzea.
- Bulego, gela eta instalazioen desinfekzio eta arratoi-garbiketa egitea.
- Eraikin guztien barnealdea margotzea.
- GHKren jabetzakoa den edozein elementu berehala ordezkatzeta.
- Lorezaintza-lanen aldi behineko artapena egitea.
- Instalazio elektrikoaren araudi-ikuskapenak eta artapen-lanak (goi- eta behe-tentsioa) egitea.
- Edateko ura ponpatu eta banatzeko instalazioen artapena eta kontrola egitea.
- Laneko Arriskuen Prebentzioari buruz aplikatu beharreko baldintza eta premien arabera, lan-zentroko elementu jakin batzuen artapen egokia egitea.
- Eguraldi-baldintza txarretan ere, ibilgailu astunak hiri hondakinak deskargatzeko hobietara eta kimaketa-hondakinen biltegira iristeko sarbidea bermatzea (elurra eta abar).

Artapen-planean, egitea proposatzen duten artapen-lanak, horiek egiteko bitartekoak eta horien maiztasuna zehaztu beharko dituzte lizitatzailuek.

Esleipendunak GHKren jabetzako instalazio finkoak kontserbatzeko betebeharra betetzen duela bermatzeko, kontratuaren iraunaldiaren azken bi hilabetetan, GHK-k egokitzat jotzen duen esku-hartze teknikoa egingo zaie instalazio horiei: hala, azken bi hilabete horietan, esleipendunak beharrezko konponketa eta ordezkapenak egingo ditu, erabat bere kargura.

Kontratua iraungi edo indargabetzen bada, GHKri itzuli behar zaizkion instalazio guztiak kontserbazio-egoera ezin hobean egongo dira, inolako karga eta zergarik gabe.

GHK-k egiten duen kontrola alde batera utzita, instalazio finkeen zaintza edo jagoletza, GHKrena izan ala ez, esleipendunaren ardura izango da, eta beraz, instalazioetan erabateko segurtasuna bermatzeko beharrezko elementuak eduki beharko ditu.

Enpresa esleipendunak Baldintza Agiri honen xede diren zerbitzuetarako bakarrik erabili ahal izango ditu lokal eta instalazio guztiak, eta ezingo ditu zerbitzu honekin zerikusirik ez duten funtzio edo lan partikularrak egiteko erabili.



ADMINISTRAZIO KONTSEILUAK

2014 EKA. 19

Aprobado por Consejo de Administración.

Hernani,

2014 JUN. 24

Idazkarak,



Arau horren salbuespentzat joko dira GHK-k ezohiko moduan agintzen dituen zerbitzuak.

Akei transferentzia-estazioari, baita horren oinarrian dagoen hondakindegia zaharrari ere, ingurumen-kontrola egiten zaie. Ingurumen-kontrolerako lan horien egitean, maniobrak egiteko zabaldegian eta kimaketa zein lorezaintza-hondakinen biltegian kokatutako zedarrietako datu topografikoak hartzen dira. Hori dela-eta, enpresa esleipendunak hirugarren enpresa batekin koordinatu eta lankidetzan egin beharko du, hirugarren enpresa horri kontrol hori egiten laguntzeko, eskatutako lekuetara iristen lagunduz.

GHK-k azpikontratatuako enpresaren bat instalazioetara joaten bada kimaketa eta lorezaintza-hondakinak txikitu, izpitu, zamatuta eta garraiatzeko, esleipenduna enpresa horrekin koordinatu beharko da, lan horiek edo GHK-k azpikontratatuako beste enpresa batzuenak ez oztotatzeko, horiei instalazioetara sarbidea erraztuz.

3.4 Kanpoko erabiltzaileek egiten dituzten deskargen kontrol eta jagoletza

Esleipendunak instalazioen jagoletza egin beharko du, baimenik ez duen inork instalazioetan sar ez dadin, edo baimenik ez duen inork honako zerbitzu hauek erabil ez dituzan:

- 1.- Hiri hondakinak deskargatzeko hobia
- 2.- Kimaketa eta lorezaintza-hondakinen biltegia
- 3.- GHK-k zerbitzu-premien arabera ezartzen duen beste edozein biltegi


Esleipendunak aipatutako zerbitzuen jagoletza eta kontrola bermatuko honako baldintza hauetan:

Kanpoko erabiltzaileek instalazioak erabili ahal izango dituzte ordutegi honetan:

08:00 eta 14:00 bitarte, asteleheneetik ostiralera, urte osoan (abuztua barne).

Instalazioak itxita egongo dira larunbat, igande eta jaiegun ofizialetan. Kasu honetan, San Martin Porres eguna ez da jaieguntzat joko. Tokiko jaieguna Arrasateko jaiegun ofiziala izango da.

Esleipendunak bermatuko du ordutegi horretatik kanpo, kanpoko erabiltzaileak instalazioetan ez sartzea, baldin eta GHK-k horretarako baimen berezirik eman ez badie.



Halaber, arestian aipatutako ordutegian, GHK-k baimendutako edozein erabiltzailek edozein zerbitzu erabiltzeko aukera izatea bermatu beharko du esleipendunak, betiere langile baten jagoletzapean.

Lizitatuzaileek, beren eskaintzetan, lan horiek egiteko modua proposatu beharko dute, baita horiek egiteko zein giza baliabide esleitzen dituzten ere.

Jendaurreko ordutegian, esleipendunak langile bat eduki beharko du instalazioetan, horiek momentu oro irekita daudela bermatzeko eta bertan kontrol-lanak egiteko.

Jendaurreko ordutegitik kanpo, sarrerako langa irekita dagoen bitartean, esleipendunak jagoletza iraunkorra jarri beharko du instalazioetan. Instalazioetako langileak bertatik ateratzen badira, langa itxiko dute, eta behar bezala kontrolatu beharko dute baimenik gabeko inork ez edukitzea ez giltzarik edo langaren urrutiko kontrola eskuratzeko modurik.

Esleipendunak bermatu beharko du hondakinak Sasietara eramateko ibilgailuak iristen diren bakoitzean (trakzio burua eta erdiatoia), langa irekita dagoela, era horretan, GI-3551 errepidean zirkulazio-arazorik ez sortzeko.

Lanorduetan, Akeiko instalazioetan jagoletza-lanak egiten dituzten langileek telefono mugikorra izango dute eskuragarri.

Zaindariak honako egiaztapenak egingo dizkio hondakinak deskargatzera iristen den ibilgailu bakoitzari, bai hiri hondakinen hobira bai kimaketa-hondakinen biltegira iristen denari:

GHKren onarpen-dokumentua eta bestelako dokumentazio garrantzitsua egiaztatatu beharko ditu.

Deskarga egin baino lehen eta deskarga egin ondoren, ibilgailua pisatuko du. Kanpoko erabiltzaileek ez dute baimenik beren kabuz pisaketarik egiteko.

Kargaren egiaztapena egin beharko du, GHKren irizpideen arabera, hondakinak onargarriak direla bermatzeko. Hondakinak onartezinak balira, hondakinen atal onartezina bereizi edo biltzeko eskatuko dio erabiltzaileari. Beharrezkoa bada, deskarga egin gabe instalazioetatik ateratzeko eskatuko dio erabiltzaileari.

Zamaren ikuskapena egiteko orduan, lehen ikuskapen bat egingo da ibilgailuan bertan, eta beste bat deskarga egiten den momentuan, bai hobian egiten diren deskargen kasuan, bai kimaketa-hondakinen biltegian egiten diren deskargen kasuan ere.



2014 EKA 18 (e)an onartua
Aprobado por: Consejo de Administración.

Hernani,

2014 EKA JUN: 20



Idazkaririk

Erabiltzaileari agindu zehatzak emango dizkio hondakinak non eta nola isuri behar dituen adierazteko; erabiltzaileak agindu horiek derrigorrez bete beharko ditu.

Gorabehera aipagarriak badago (hondakinak erretiratu nahi ez izatea eta bestelakoak), zaindariak berehala jakinaraziko dio GHKri gertatutakoa. Beharrezkoa bada, isuritako hondakin argazkiak aterako ditu, GHKri gertatutakoaren informazioa eta probak bidaltzeko, eta era horretan, beharrezkoa bada, zigorrak bideratzeko.

Garraio bakoitzari buruzko gutxieneko informazio hau erregistratu beharko du (bi erregistro bereizi egongo dira, zerbitzu-mota bakoitzerako bat):

- Mankomunitatearen onarpen-dokumentuko erreferentzia
- Ibilgailuaren matrikula
- Hondakin-mota
- Hondakinaren jatorria
- Ekoizlearen identifikatzailea
- Garraiolariaren identifikatzailea
- Data
- Ordua
- Ibilgailuaren pisua, zamatuta
- Ibilgailuaren pisua, hutsik
- Zamaren pisua
- Gorabeherak
- Tiket bakoitzaren jatorrizko kopia gorde beharko da, behar bezala ordenatuta, GHKri emateko, eta beste kopia erabiltzaileari emango zaio.

Eskuratutako datu guztiekin, esleipendunak beharrezko parte eta erregistro informatizatuak egingo ditu, eta informazio hori GHKri bidaliko dio euskarri informatikoan, pisaketa-tiketekin eta informazio hori entregatzeko zehaztutako eduki, formatu, maiztasun eta moduetan.



Hondakindegietara iristen diren ibilgailu guztien pisaketa-frogagiriak ezinbesteko baldintza izango dira fakturak onartzeko, eta GHKri bidali beharko zaizkio, zerbitzua egin eta hurrengo hilabeteko lehenengo astean.

Esleipendunak behar bezala bermatu beharko du Transferentzia Plantako erabilera-arauak eta kimaketa-hondakinen biltegikoak (hondakin onargarriak izatea, hondakin-kopuru egokiak eta abar), hain zuzen ere GHK-k ezarritakoak, behar bezala betetzen dituztela zerbitzu-erabiltzaileek.

GHK-k, kasu bakoitzean aplikagarri diren zerga-ordenantzen arabera, eskubidea izango du Akei estazioko zerbitzuak erabiltzeagatik tasak kobratzeko.

GHK-k onarpen-dokumentu bat sinarazi diezaioke zerbitzu horiek erabiltzen dituen erabiltzaile bakoitzari. Edonola ere, esleipendunak bermatuko du GHK-k baimendu gabeko erabiltzaileek hobian edo kimaketa-hondakinen biltegian isurpenik egiten ez dutela.

Zaintzaileentzako argibide-orriak osatu beharko ditu esleipendunak, eta oro har, lan horietarako prestakuntza egokia emango die langileei.

3.5 Mankomunitateko zerbitzuek Akei estazioa erabiltzea

Aurreko klausulan ageri diren erabilera eta jagoletza-baldintzak kanpoko erabiltzaileei aplikatzekoak dira soilik, bai partikularrak, bai erakundeak, bai udalak bai GHK ez den enpresak izan, baldin eta ez bada GHK bera edo horri lehia egiteko kontratatutako enpresa bat.

Halaber, kanpo erabiltzaileetat joko da, eta beraz, onarpen-baldintza, erabilera-baldintza, erregistro, pisaketa eta jagoletza-arau berak onartu beharko ditu enpresa emakidadunak, GHKkoa ez den kontratu etako hondakinak edo kimaketa-hondakinak deskargatu nahi baditu.

Enpresa emakidadunak baldintza horiek betetzen dituela bermatzeko, GHK-k jarraipen berezia egingo dio, era horretan, GHKkoak ez diren interesen alde joka ez dezan.

Debagoieneko Mankomunitateko zabor-bilketa zerbitzuek, eta horretarako azpikontratutako enpresek GHK-k baimendutako sarbide eta ordutegiak izango dituzte, betiere beren jarduerak errazteko.

Era horretan, hiri hondakinak biltzeko gaueko zerbitzuek egunero deskargak egitea bermatuko da, baina arau bera aplikatuko zaie eguneko zerbitzuei.

Mutur hori Debagoieneko Mankomunitateko berezko zerbitzuetan bakarrik da aplikagarria, GHK-k baimena ematen badie Akein mugarik gabe deskargak



egitea; besteak beste, hiri hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzuetan. Baldintza hori ez zaio automatikoki aplikatuko Mankomunitateko edozein zerbitzuri edo Mankomunitateak kontratatutako edozein enpresari.

3.6 Lan-Arriskuen Prebentzioa

Enpresa esleipendunak derrigorrez bete beharko ditu jarraian aipatuko diren legeriako betebeharrak, baita lizitazioa egin, eskaintzak aurkeztu edo kontratua egikaritzeko momentuan indarrean dagoen legeria ere.

Azaroaren 8ko **231/1995 Legea**, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa.

Abenduaren 12ko **54/2003 Legea**, Lan Arriskuen Prebentziorako araudia eraberritzekoa.

Urtarrilaren 17ko **39/1997 Errege Dekretua**, Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzen duena.

Urtarrilaren 30eko **171/2004 Errege Dekretua**, Lan Arriskuen Prebentziorako 31/1995 Legeko 24. artikulua garatzen duena.

Ondorioz, enpresa esleipendunaren betebeharra izango da:

- Langileen segurtasuna eta osasuna bermatzea.
- Lan Arriskuen Prebentzioa egitea, beharrezkoak diren neurri guztiak hartuz.
- Lan-arriskuen ebaluazioa egitea.
- Arrisku-ebaluazioaren emaitzak oinarri gisa hartuta, prebentzioaren plangintza egitea.
- Lanerako bitarteko edo baliabideek langileen segurtasuna errespetatzen dutela bermatzea.
- Egin beharreko lanerako babes pertsonalerako bitarteko egokiak ematea langileei, arriskuak nahikoa ekidin edo mugatu ezin direnean.
- Arriskuei, horien aurrean hartu beharreko babes-neurri eta jardueri zein larrialdietarako hartu behar diren neurriei buruzko informazio egokia ematea langileei.



- Langileei kontsulta egitea, eta lan-segurtasun zein osasunean eragina duten gai guztietan langileen partaidetza ahalbidetzea.
- Prebentzio-esparruan langile bakoitzak prestakuntza egokia jasotzen duela bermatzea.
- Langileak arrisku larri eta berehalako baten aurrean daudenean, horren berri eman eta beharrezko neurriak hartzea.
- Aldian behin, langileei azterketa medikoa egiten zaiela bermatzea.
- Arrisku profesionalen prebentzioaz arduratzen den langile bat edo gehiago izendatzea, prebentzio-zerbitzu bat sortzea edo zerbitzu hori entitate espezializatu batekin hitzartzea.
- Esleipendunak bere obligazioak behar bezala betetzen dituela egiaztatzeko, arlo honen inguruan eskatzen zaion informazio guztia eman beharko die esleipendunak GHKko prebentzio-zerbitzuei.

3.7 Ekipo mugikorrak

Zerbitzua behar bezala emateko beharrezko bitarteko material guztiak eman beharko ditu esleipendunak, eta nahitaezko kontsideratzen dituenak GHKk zerbitzuari lotutako BI zoru mugikorreko erdiatoiez aparte. Kontratua amaitzen denean, esleipendunak bi erdiatoi horiek GHKri itzuli beharko dizkio erabilera eta mantentze egoera ezin hobean.

Ibilgailu berriak edo gehienez ZORTZI URTEKO antzinatasunekoak onartuko dira soilik, fitxa teknikoan eta zirkulazio baimenean ageri den datatik aurrera kontatuta.

Zerbitzua emateko erabiltzen diren bitarteko materialen bitartez, momentu oro bermatu beharko da lan-plana zehatz-mehatz betetzeko adinako marjina dagoela, baita sor daitezkeen gorabeherak konpontzeko marjina dagoela ere.

Lizitzaileek, beren eskaintzetan zehaztu beharko dute zerbitzu ezberdinetan zein material mugikor erabiliko duten. Halaber, argi eta garbi adierazi beharko dute zerbitzua behar bezala emateko beharrezko materiala zein den, baita erreserbako materiala zein den ere, hau da, gehienetan erabiltzen ez den arren, matxurarik badago, edo lan-jarioa nabarmen areagotzen bada, kasu horretan erabiliko litzatekeen materiala.

Erabili beharreko material mugikorra zerbitzuaren eskakizunetara gehien egokitzen dena izan beharko da.



Zerbitzua emateko erabiliko den material guztia zehaztu beharko dute lizitzaileek, eta material horiei buruzko ezagutza hobea izateko beharrezkotzat jotzen dituzten datu guztiak zehaztuko dituzte.

Esleipendunak zerbitzu horietan erabiliko den material guztia artapen-plan prebentibo eta zuzengarriaren barne eduki beharko du derrigorrez, eta plan horretan zehaztu beharko du materialak noiz koipeztatu eta egiaztatuko diren, baita noizean behineko artapen-lanak noiz egingo diren ere, besteak beste.

Automobil guztiei, bai arinei bai astunei, Industria Lurralde Zuzendaritzaren aldian behineko ikuskapenak egin beharko zaizkie, indarrean dagoen araudiak xedatutakoaren arabera. Hori aplikagarri izango zaie halaber GHKk jarritako zoru mugikorreko erdiatoiei, zeintzuen mantentze, aseguru, IAT, e.a.-ei dagozkien gastuak esleipenaren kontura izango baitiren.

Lehiaketa honetako xede diren material guztiak, hain zuzen ere kontratu honetan ageri direnak, kontratuko zerbitzuak eskaintzeko erabiliko dira soilik, hau da, ezingo dira emakidarekin zerikusirik ez duten zerbitzuetan erabili, baldin eta GHK-k ez badu horretarako berariazko baimenik ematen.

Esleipendunaren betebeharra izango da beharrezko kontserbazio, artapen eta konponketa-lanak egitea, era horretan, ibilgailu guztiak beti baldintza ezin hobeagoetan egon daitezzen.

Esleipendunak egiten duen eskaintzan, beraz, kontratuaren prezioan, esleipendunak zerbitzua aurrera eramateko emango dituen ekipoen edo ibilgailuen amortizazioa jasoko balitz, kontratua amaitzen denean ekipo edo ibilgailu horiek GHKren jabetzakoak izatera pasako dira bere osotasunean amortizatuak izan badira; horrela izango ez balitz, GHKren aldeko likidazioa egingo da benetan amortizatu diren kopuruengatik.

Ibilgailuak garbitasun eta higiene-baldintza egokietan mantenduko dira.

Hiri hondakinak garraiatzeko erabiltzen diren erdiatoiek estankotasun-maila perfektua eduki beharko dute, hondakinak garraiatzean lixibiatuak gal edo isur ez dezaten. Estakontasun hori bermatzeko, esleipendunak ekipo egokiak erabili beharko ditu eta artapen egokia eman beharko die. Halaber, autoritate eskudunak, bai ingurumen mailan bai zirkulazio-mailan (besteak beste) ezar ditzakeen zigorrak esleipendunaren kontura izango dira, hots, zigor horiek sortzen dituzten ondorio ekonomikoak, erantzukizun zibilekoak eta ingurumenekoak bere gain hartu beharko ditu.



Gehienez ZORTZI URTEKO antzintasuneko erdiatoiak onartuko dira soilik. Datu hori modu zehatz eta egokian zehaztu beharko da eskaintzan, erdiatoi bakoitzaren berezko dokumentuak aurkeztuz.

Kimaketa-hondakinak horiek biltegiratzeko zehaztutako lekuan pilatzeko zein bitarteko erabiliko dituzten zehaztu beharko dute lizitatuzaileek.

Materialaren kudeaketa tekniko zein ekonomikoa esleipendunaren ardura izango da.

Lizitatuzaileek, beren eskaintzetan, ekipo mugikorrenzako proposatzen dituzten artapen-lanak ahalik eta modu zehatzenean adierazi beharko dituzte, baita lan horien irismena eta maiztasuna ere.

3.8 Kontrol-sistemak

GHK-k zerbitzuaren egiaztapen eta jagoletza-funtzioak beteko ditu, eta beraz, edozein momentu edo lekutan egokitzat jotzen dituen egiaztapenak egin ahal izango ditu. GHK-k, egindako egiaztapenen arabera, agindu eta jarraibide zehatzak eman ahal izango ditu, eta esleipendunak horiek derrigorrez bete beharko ditu.

Lizitatuzaileek gailu bizkorak aurreikusi beharko dituzte, GHK SAr egindako lanen justifikazioa emateko, eta GHK-k kontratatutako zerbitzuaren inguruan eska ditzakeen kontrolak behar bezala egiteko, proposatutako baliabideak esleitzuz eta eskaintako emaitzak lortuz.

Gainera, esleipendunak momentu oro komunikazio-sistema bizkor eta eraginkorra bermatzeko beharrezkoak diren bitartekoak eduki beharko ditu eskuragarri (telefonoa, mugikorra, posta elektronikoa eta abar).

Hilean behin, **N hileko** lehen astean, esleipendunak **N-1** hileko txosten oso eta xehatua aurkeztu beharko du, eta bertan, gutxienez informazio hau agertu beharko da:

- Esleitutako abiapuntutik zehaztutako hondakindegira egindako garraio-lanak.
- Data
- Garraio-kopurua
- Transferentzia estaziotik irteteko eta hondakindegian deskarga egiteko ordutegiak
- Garraio bakoitzeko tona-kopurua
- Gorabeherak



2014 EKA. 20 (e)an onartua
Aprobado por Consejo de Administración.

Hernani,

2014

EKA. JUN. 20



Idazkariak,

- Egindako lanen errealitate islatzen laguntzen duen beste edozein daturi buruzko xehetasunak
- Hileko txosten horrekin batera, hondakindegietara iritsitako ibilgailuen pisaketa-frogagiriak aurkeztu beharko dira
- Hileko erregai-kontsumoa
- Baliabide mugikorren mantentze prebentibo eta zuzengarriaren prozedurak:
 - Artapen-lanak egin zaizkien ibilgailuak
 - Egindako lanak
 - IATEi buruzko informazioa
- Matxuragatik egindako konponketak
 - Matxuratutako ibilgailua eta ibilgailu-mota
 - Ibilgailua zerbitzuz kanpo zenbat denbora egon den eta horren ordeztu erabili den ibilgailuaren matrikula zein datuak.

Edonola ere, GHK-k zerbitzuari buruz eskatzen dituen informazio eta datu guztiak entregatuko ditu esleipendunak, betiere GHK-k zehaztutako formatu eta maiztasunarekin.


Hileko txosten hori aurkeztea ezinbesteko baldintza izango da GHK SAUK hilabete horri dagokion ziurtagiriaren ordainketa egin dezan.

Edozein momentutan, GHK-k SAUK eskatutako edozein dokumentu aurkeztu beharko du esleipendunak, bereziki gizarte segurantza, lan-istripu, aseguru-poliza eta abarrei buruzkoak.

4 KONTRATUAREN BEHARKIZUNAK EZ BETETZEAK SORTUTAKO ZIGORRAK ETA ISUN HERTSATZAILEAK

Kontratuan xedatutako beharkizunak ez betetzeak ekarriko du kontratudunari ezartzea kapitulu honetan jasotzen diren zigorrak, gerta daitezkeen kalte-galeren ordaina emateko betebeharra eragotzi gabe.

Jarraian arautzen den ez betetze eta zigorren araubideak ez du zer ikusirik kontratuaren lotura hertsiaz kanpo diren arau-hauste eta isunekin, sektore honetako araudietan aurreikusten diren irizpide eta arauen arabera erregulatzen baitira.



Kontratudunak eskaintza aurkezte hutsarekin, Agiritan jasotzen den zigor araubidea onartzen du.

5 EZ BETETZEEN MAILAKETA

Zigor araubide honen ondorioetarako, kontratistaren ez betetzeak larriak eta arinak izan daitezke.

Ez betetzeak delitu edo hutsegite baten izaera baldin badu, agintari judicial eskumendunei jakinaraziko die kontratazio-organoak.

5.1 Ez betetze larriak

Ez betetze larriak dira:

- Aplikagarri diren arauetan xedatutakoak osorik edo zati batean ez betetzea kontratudunak, bereziki arau labora, tekniko, segurtasuneko edo ingurumenekoetan xedatutakoak, edo arau horien xedez betebeharreko diren jarduerak ez egitea.
- Eskaintzan proposatutako langileen edo baliabideen esleipen edo dedikazioari buruzko beharkizunak ez betetzea.
- Kontratuaren xede den prestazioaren zati bat azpikontratatzea Agiritan jasotzen diren baldintzak eta araubidea aintzat hartu gabe.
- Kontratudunak nahitaez sinatu behar dituen aseguru polizak ez kontratatzea, edo haiekiko beharkizunak ez betetzea.
- Kontratu hau gauzatzeko beharrezko diren lizentziak, ahalmen emateak, baimenak eta gainerako baldintza juridiko-administratiboak ez eskatzea edo ez eskuratzea.
- Zerbitzuen edo instalazioen gainbegiratze edo ikuskapen lanetan GHKren eginkizunak oztopatzea.
- Kontratazio-organoaren baimenik gabe zerbitzuetan aldaketak egitea.
- Konprometitutako bitarteko materialak edo giza baliabideak kontratuaren zereginetarako ez jartzea, bereziki azpimarratuz eskaintzan proposatutako garraio bideak kontratuaren zereginetarako ez jartzea.
- Zerbitzuen prestazioa arrazoi gabe bertan behera uztea edo etetea, osorik edo hein batean.
- Langileei buruzko beharkizun labora edo sozialak ez betetzea.
- Segurtasun eta Osasun Planaren eta Ingurumen Jagoletzarako Programaren beharkizunak orobat ez betetzea.



- Baldintza Agiri honetako 9. klausulan aipatzen den hitzarmena ez sinatzea, hori sinatzeko oztopoak jartzea edo hori sinatu nahi ez izatea.
- Kontratuaren gauzatze aldi hiru (3) ez betetze arinez zigortua izatea.
- Zerbitzuak ematen hasteko orduan atzeratzea, aurreikusitako datatik aurrera hilabeteko epean gehienez.
- Zerbitzuaren prestazioa etetea.
- Zerbitzu bat egitean salatutako irregulartasun bat ez konpontzea edo hori zuzentzeko ez esku hartzea.
- GHK-k zerbitzuen ordenari, moduari eta erregimenari buruz emandako aginduak, eta oro har, GHK-k zerbitzuen prestazioa arautzeko emandako arauak ez betetzea.
- GHK-k eska ditzakeen datu eta informazioak ezkutatu edo faltsutzea. Zerbitzua ematean sistematikoki berandutzea.
- Eskatutako ordutegiak askotan ez betetzea, eskaintzan zehaztutako bitarteko materialak ez erabiltzea edo material horiek kontserbazio-egoera txarrean edukitzea.
- Giza baliabide edo baliabide materialak eskaintzan zehaztutakoa baino kopuru eta kalitate apalagoan erabiltzea.
- Jarduketa-epeak justifikaziorik gabe ez betetzea, derrigorrezko aldi behineko informazioa puntualki ez aurkeztea.
- GHKko zerbitzu teknikoekin lankidetzak eskasa edukitzea.
- Ez betetze arinak behin eta berriz egitea.

5.2 Ez betetze arinak

Kontratuaren gauzatze urratsetan, ez betetze arinak dira:

- GHKren ordezkariak emandako jarraibideak ez betetzea, lan araubideari, zerbitzuaren ezaugarriari edo zerbitzuaren segurtasunari eragiten ez badie.
- Zerbitzua emateko zehaztutako exekuzio-epeak ez betetzea, eta arestian zehaztutako gabeko gainerako ez betetzeak, nolabait kontratuko dokumentazioan zehaztutako baldintzak kaltetzen badituzte.
- Kontratuaren dokumentuetan eskatzen diren txosten eta dokumentuak aurkezteko hamabost (15) egun baino gehiagoko atzerapena izatea.
- Aurkezten den dokumentazioak akatsak izatea.



ADMINISTRATIO KONTSEILUAK

2014 EKA. 19

Aprobado por Consejo de Administración

Hernani,

2014 EKA. 20



(E) onartua
Idazkariak,

- Kontratuaren dokumentuetan edo arau aplikagarrietan finkatutako gainerako beharkizunak ez betetzea, aurrez larrizat mailakatuak izan ez badira.

6 ZIGORRAK ETA ISUN HERTSATZAILEAK EZARTZEA

6.1 Zigorren araubidea

Kontratudunaren ez betetzeek ondorio juridiko hauek izan ditzakete:

- Ez betetze arinek ekarriko dute 200 euro eta mila euro (1000,00 €) bitarteko zigor bat ezartzea.
- Ez betetze larriek ekarriko dute 1.001,00 eta 60.000,00 euro bitarteko zigor bat ezartzea, klausula honen hurrengo pasartean xedatzen dena baztertu gabe.

Azaldutako zigor horiez gain, GHK-k zigor hertsatzaileak ere ezarri ahal izango dizkio kontratudunari, beharkizunak ez betetzeko jarrerari eusten badio, betiere alde aurretik eskatu izan bazaizkio eta finkatutako epean bete ez baditu. Isunaren zenbatekoa izango da 1.000,00 euro egun bakoitzeko.

Kontratuaren epeak, orokorrak nahiz zatikakoak, kontratudunaren ardurapeko arrazoiengatik betetzen ez badira, GHK-k aukera izango du edo kontratua indargabetzeko, behin betiko bermea konfiskatuz, edo zigor hertsatzaileak ezartzeko, eguneko 0,20 euro kontratuaren mila bakoitzeko, ez betetze hori gertatzen den unetik bertatik aplikatzekoa.

Atzerapen zigorra kontratuko prezioaren ehuneko 5aren multiplora iristen denean, kontratazio organoak kontratua edo indargabetzea edo jarraitzea erabaki dezake, zigor berriak jarritz.

Edonola ere, kontratudunaren kargura izango dira arau-haustea ekarri zuen egintza zuzentzeko neurrien kostuak.

Ezar daitezkeen zigorrez gain, kontratuduna berandutzen bada ez betetzeen ondorioz sortutako egoerei konponbidea bilatzen, hutsuneak betetzeko behar diren erabakiak une oro emateko ahalmena izango du GHK-k, eta erabaki horietatik gasturik sortzen baldin bada, bermearen kargura estaltzeko. Zerbitzua eteten bada edo zerbitzua erasaten duten irregulartasun larririk badago, GHK-k eskubidea du esleipendunarekin kontratu-harremana eten eta hirugarrenengan jotzeko, era horretan, kontratatutako zerbitzua bermatzeko.



2014 EKA. 19 (lehen quartua)
Aprobado por Consejo de Administración.

Hernani,

2014 EKA JUN. 20



Idazkariak,

6.2 Zigorren mailakatzea

GHK-k zigorrak ezartzen dituenean, egokitasun bat gorde beharko du, ez betetzearen larritasuna eta ezarritako zigorra pareko izan daitezen, mailakatze horretan irizpide hauei jarraituz: (i) ez betetze mota; (ii) intentzionalitatea izatea; (iii) sortutako kalteen izaera; (iv) urte beteren buruan izaera bereko ez betetze bat baino gehiago metatzea; eta (v) kontratudunak eskuratutako irabazia.

6.3 Zigorrak eta isun hertsatzaileak eguneratzea

Baldintza Agiri honetan zehaztutako zigorren eta isun hertsatzaileen zenbatekoa urtero eguneratuko da, Espainiako KPIa edo EAeko KPIa erabiliz, baldin eta azken hori apalagoa bada.

7 **ESKAINTZAK AURKEZTEKO DERRIGORREZKO EZAUGARRI TEKNIKOAK**

7.1 Derrigorrezko baldintzak

Eskaintza guztiek DERRIGORREZKO ezaugarri tekniko hauek bete beharko dituzte:

7.1.1 Soinu-maila

Ibilgailuaren dokumentazio teknikoa aurkeztu beharko da, indarrean dagoen Lan Arriskuen Prebentziorako Legean soinu-igorpenari buruzko xedatutako araudia betetzen duela egiaztatzeko.

Datu horiek bermatzeko, berariaz egindako neurketa teknikoak eta horri dagozkion homologazioak biltzen dituen txostena aurkeztu beharko da.

7.1.2 Motorra

Ibilgailuaren fitxa teknikoak honako ezaugarri hauek ziurtatu beharko ditu:

- Diesel 4x4
- 420 CV-ko potentzia gutxienez
- 1800Nm-ko indar momentua gutxienez



- EURO V araudia derrigorrez betetzen duela.
- Abiadura-mugatzaileria

7.1.3 Lozagia

Ibilgailuak aldagailu erdiautomatiko sekuentzialdun lozagia duela ziurtatzen duen frogagiria.

7.1.4 Trakzioa

4x4 zoru mugikorreko erdiatoia mugitzen duen trakzio-buruarentzat.

7.1.5 Balaztatze-sistema

Ziurtagiria, ibilgailuak elementu hauek dituela bermatzen duena:

Retarder/intarder balazta

ABS sistema

Aurrekoak: disko aireztatuak

Atzekoak: disko aireztatuak

7.1.6 Derrigorrezko beste baldintza batzuk

- Zuriz margotutako kabina/ibilgailua, gidariaren eta kopilotuaren ateetan GHKren logotipoa egon beharko da ikusgai, ate osoa hartuz. GHK-k kontratua sinatzean emango du logoa.
- Aire girozaileria, berogailua, aireztapen-sistema eta lurrina kentzekoa.
- Inklinazio erregulagarriko bolantea.
- Gidariaren eserleku pneumatikoa.
- Ibilgailura sartzeko hiru maila, ez-labainkorrak eta argiztatuak.
- Argi birakari homologatua.
- Señaleztapenerako trianguluak.
- Takografoa.
- Aginte-panelean integratutako hodometroa.
- Maila-adierazleak.



- Altxagarriak.
- Leiho jasogailu elektrikoak.
- Ixte-sistema zentralizatua.
- Alboko babes barrak.
- Erreminta-kutxa.
- Atzerako ispilu elektrikoak eta termikoak.
- Ihes hodi bertikala, isilgailuarekin.
- Indar hartunea abiadura-kaxatik edo banagailutik atera behar da.
- Koipeztaketa automatiko eta zentralizatua.
- Deflektore integratuak.
- Atoietarako kakoa, baita hori lotzeko instalazio elektrikoak, hidraulikoak eta abar.
- Gidariarentzako, eta beharrezkoa bada, laguntzailearentzako ikusgaitasun handiko txalekoa.

7.1.7 Langileak

Baldintza Administratibo Berezien Agiriko 25.2 klausulan aipatzen den eranskinen xedatutakoari jarraiki, zerbitzura atxikitako langileak derrigorrez subrogatzeko betebeharra bere gain hartuko beharko du eskaintzaileak.

Eskaintzaileak kontratuari atxikitzeko giza baliabideei buruzko proposamena egin beharko du baldintza agiri honetako 3.1 klausulan zehaztutako baldintzetan.

8 ENPRESA LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO DERRIGORREZKO DOKUMENTAZIO TEKNIKOA

8.1 Ibilgailuen eta erdiatoien ezaugarri teknikoak

- Pisuak hutsik (kg)
- Motorra
- Marka eta modeloa
- Ezaugarri nagusiak Indar momentua eta abar
- Erregai-kontsumoa, hori egiaztatzeko ziurtagiria aurkeztu beharko da



- Gas-igorpen maila, hori egiaztatzeko ziurtagiria aurkeztu beharko da
- Soinu-igorpen maila, hori egiaztatzeko ziurtagiria aurkeztu beharko da
- Honako elementu hauen mota eta ezaugarriak: direkzioa, ardatzak, balaztak, gurpilak eta abar
- Dokumentazioa oro har
- Kamioi(ar)en eta erdiatoi(ar)en zirkuitu hidrauliko, pneumatiko, elektriko eta elektronikoak
- Erabilera eskuliburua, gazteleraz, erabilera eta artapena behar bezala egiteko
- CE adostasun-adierazpena.

8.2 Mantentze prebentibo eta zuzengarrirako eta baskularen kalibraketarako proposamena

Baskularen artapena egiteko proposatutako ezaugarriak biltzen dituen txosten bat aurkeztu beharko da, betiere Baldintza Agiri honetan xedatutako baldintzak errespetatuz, ahalik eta azkarren, artapen hori egiteko, era horretan, Plantaren jarduera ahalik eta gutxien aldatzeko.

8.3 Memoria teknikoa: Zerbitzu-prestazioaren, garraio-kudeaketaren eta Akei transferentzia-estazioaren proiektua

ZERBITZU PRESTAZIOARI, GARRAIO KUDEAKETARI ETA AKEI TRANSFERENTZIA ESTAZIOAREN PROIEKTUARI BURUZKO MEMORIA TEKNIKOA izeneko txostena aurkeztu beharko dute. Bertan, ahalik eta modu zehatzenean azaldu beharko dute zerbitzu hori nola emango dute, aurreikusitako baliabideak eta plangintza egokiak direla eta zerbitzuaren premien araberakoa direla justifikatuz.

Proiektu horren edukiak ahalik eta modu argienean aurkeztuta egon beharko dira, dokumentua behar bezala egituratuta egon beharko da, eta datu teknikoetan, eskemetan, planoetan eta abar, ahalik eta xehetasun gehien eman beharko da, behar bezala ebaluatu ahal izateko. Proiektu horrek eduki hauek izan beharko ditu GUTXIENEZ:

- Aurreikusitako giza baliabideak, horien maila profesionala eta funtzioak.



- Aurreikusitako baliabide materialak, ibilgailuak zein gainerako makineria, erremintak, erregaiak eta abar zehatz-mehatz azalduz.
- Ustekabekoei, matxurei eta antzekoei aurre egiteko aurreikuspenak, ibilgailuen, makineriaren eta instalazioen mantentze prebentibo eta zuzengarrirako plana barne.
- Lanen kokapena, plangintza eta koordinazioa, proposatutako baliabideen araberakoak izan beharko direnak, eta aldi berean, zerbitzuaren premiak asetzeko egokiak. Plangintzaren barne egon beharko dira aurreikusitako egutegia eta ordutegia, baita informazioa kontrolatu, erregistratu eta komunikatzeko sistemak ere.
- Zerbitzuan eragina duten kanpo baldintzatzaileen inguruko aurreikuspenak (hondakindegiko ordutegiak zein araudiak, eta abar), zerbitzuaren premien araberakoak izan beharko dira.
- Akei Plantarako artapen-proposamena, lan, baliabide eta proposamen guztiak modu ZEHATZEAN azaldu, betiere epeak eta maiztasunak ere zehaztuz, era horretan, eskaintzaren irismena ezagutu ahal izateko.
- Baldintza Administratibo Berezien Agiriak xedatutakoaren arabera, eskaini nahi den beste edozein hobekuntzaren azalpena.

9 PROPOSAMENAK BALORATZEA

Proposamenek 100 puntu jasoko dituzte gehienez, honela banatuta:

ESKAINZA TEKNIKOA.....	20 PUNTU
ESKAINZA EKONOMIKOA.....	80 PUNTU


Jarraian aipatzen diren irizpide objektiboei jarraiki, eskaintza onenari esleituko zaio kontratua.

- 1) Balio judizio bitartez balioesten diren irizpideei buruzko dokumentazioa

MEMORIA TEKNIKOA. Gehienez 15 puntu.

Baldintza hauen arabera baloratuko da:

- Giza baliabideen egokitasuna zerbitzuaren premiak asetzeko.



- Aurreikusitako baliabideen egokitasuna zerbitzuaren premiak asetzeko, eskaintzan zehaztutako trakzio-buruak banan-banan aipatuz, baita ordezkioak ere, halakorik balego.
- Zerbitzua bermatzeko eskaintako erdiatoi-kopurua, horietakoren bat ordezkioa den zehaztuz (GHKk jarritako biak ez dira baloratuko).
- Ustekabeei, matxurei eta antzeko gorabehereri aurre egiteko aurreikuspenen egokitasuna, era horretan, zerbitzuaren premiak asetzeko.
- Lanen kokapena, plangintza eta koordinazioaren koherentzia, betiere proposatutako baliabideak kontuan hartuta, eta horren egokitasuna zerbitzuaren premiak asetzeko, aurreikusitako egutegiarena eta ordutegiarena barne.
- Zerbitzuan eragina dute kanpo baldintzatzaileen inguruko plangintzaren koherentzia (hondakindegia orduetegiak eta araudia, eta abar).
- Akei plantaren artapenerako proposamena, jarduera zehatzak proposatuz. Jarduerak betetzeko epeak zehaztuko dira.

HOBEEKUNTZA TEKNIKOAK: gehienez 5 puntu.

Lizitatuzaileek eskaintzen dituzten Hobekuntzak baloratuko dira, bai garraio zerbitzuari dagozkionak eta baita Transferentzia Plantari dagozkionak ere, kontratuari ekarpen eraginkorrik eragiten diotenak. Horrek ez dio GHKri inolako kosturik ekarriko.

2) Automatikoki kuantifikagarriak diren irizpideei buruzko dokumentazioa

ESKAINZA EKONOMIKOA: 80 PUNTU

Eskaintza ekonomikoaren balorazioa egiteko, garraiatutako tona bakoitzeko prezioa hartuko da erreferentzia gisa, hain zuzen ere eskaintzan zehaztutakoa.

Onartutako proposamenetako eskaintza ekonomikoen puntuazioak kalkulatzeko, P1 (beherapen maximoa, puntuazio maximoa) eta P2 (0ko beherapena, zero puntuazioa) puntuak definitzen duten lerrozuzenean, puntu horiek mugatzen duten segmentuaren barruan, interpolazio lineala egingo da.



Eskaintzetan "prezioa" baloratzeko, soilik garraiatutako tonako prezioa (BEZik gabe) hartuko da kontuan, hain zuzen ere Baldintza Administratibo Berezien Agiriko 3. Eranskineko ereduaren araberrako proposamen ekonomikoan ageri dena.

Aipatutako puntuak hauek dira:

P1– Eskaintza merkeenari dagokiona (beherapen maximoa), berari emango zaion puntuazioarekin, P_{max} puntuazio maximoarekin, alegia.

P2 – Lizitazioaren Oinarritzko Prezioari dagokiona (24 euro tonako), 0 puntu emango zaizkio prezio horri.

Eskaintzaile bakoitzak lortutako puntuazioa (P) kalkulatzeko, ekuazio hau aplikatuko da:

$$P = (P_{\max} \times B) / B_{\max}$$

Non (B_{max} = Beherapen maximoa)

Baja (B) gisa ulertzen da Lizitazioaren Oinarritzko Prezioaren eta eskaintza ekonomikoaren arteko aldea, Lizitazioaren Oinarritzko Prezioarekin zatituta.

10 NEURRIZ KANPOKO EDO EZOHIKO PROPOSAMENAK

Eskaintza bat neurritz kanpokotzat edo ezohikotzar joko da, baldin eta bere beherapen portzentajeak % 20 baino gehiagoz gainditzen badu onartutako oinarritzko proposamen guztien beherapen-portzentajeen batez besteko aritmetikoa.

Kontratu honen xedeari lotuta, neurritz kanpoko edo ezohiko eskaintzarik jasotzen bada, horiei uko egin baino lehen, hori aurkeztu duenari eskatuko zaio eskaintzaren osaketari buruz egokiak iruditzen zaizkion argibideak ematea idatziz; Kontratazio Mahaiak, argibide horiek kontuan hartuta, eskaintza egiaztatuko du. Lizitazioaileek hiru eguneko (3) epea izango dute argibide-eskaera jasotzen duten momentutik aurrera, horiek idatziz bidaltzeko.

Kontratazio Mahaiak justifikazio objektiboak kontuan hartu ahal izango ditu, esaterako, eraikuntza edo fabrikazio-metodoaren ekonomia, hautatutako



ADMINISTRAZIO KONTSEILUAK
2014 EKA. 19
Aprobado por: Consejo de Administración.

Hernani, 2014 EKA JUN. 20



(E)an onartua
Idazkariak,

irtenbide teknikoak edo kontratua betearazteko lizitatuak izan ditzakeen baldintza bereziki onuragarriak.

Edonola ere, eskaintza oso merkeak aurkezten badira, lizitatuak emandako justifikazioaren arabera, GHK-k horiek ukatu ahal izango ditu.